

### **BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK**

LORENZO ZUBILLAGA GOICOEACHEA  
MARIA CRISTINA VAL SARDÓN  
NEREA YEREGUI BALDA  
IGOR OTERMIN EGUIA  
IÑAKI ELIZALDE ZUBILLAGA  
ANDER PRADOS OTAMENDI

### **BERTARATU EZ DIRENAK**

AITZIBER OTAMENDI ECHARRI

### **IDAZKARIA**

Joanes Aleman Olló

Betelun, udaletxeko bilkura gelan, 2024ko uztailaren 30ean arratsaldeko zazpi eta erdiak direnean, Lorenzo Zubillaga Goicoeachearen jaunaren lehendakaritzapean eta egintzaren fede ematen duen Joanes Aleman Olló idazkariak lagundurik ondoan aipaturiko zinegotziak elkartu dira.

Udal bilkura dagokion deialdiaren ondoren egin da, erreglamentuan ageri den aurrerapenarekin eta deialdia beraren eta gai zerrendaren ale bat udaletxeko iragarki oholean iragarri ondotik.

Ohiko izaera duen bilkura irekirik eta lehendakaritzak publikoa dela esanik; Idazkariak bilkura hasteko behar den zinegotzi kopurua bertaratu dela egiaztaturik; gai zerrendan diren ondoko puntuak aztertzeari ekin zaio.

## **1. 2024-06-25EKO UDAL BILKURAKO AKTAREN ONARPENA**

Deialdiarekin batera banatu den 2024-06-25eko bilkurako aktaren inguruan udalbatzako kideren batek zerbait esateko duen galdetu du lehendakariak.

Zinegotzi bakar batek ere ez du deus adierazi.

Lehendakariak akta bozkatzera ekarri eta udalbatzak aho batez onartu du.

## **2. ALKATEAK EMANDAKO EBAZPENAK:**

### **1. Diegaby Hostal S.L.**

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoeacheak, 2024ko ekainaren 25en, 35/2024 Ebazpena onartu zuen. Gaia: Diegaby Hostal SLri baimena ematea ekainaren 26tik ekainaren 30era bitarteko gauetan itxeko ordutegia 7:00ak arte (gehi taberna husteko denbora osagarria) luzatzeko.

### **2. Ferianteen postuak**

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoeacheak, 2024ko ekainaren 26an, 36/2024 Ebazpena onartu zuen. Gaia: 2024ko San Pedro festak direla eta,

Serafin Fernandez Duali eta Sara Santos de los Santosi lurzoru publikoa okupatzeko baimena ematea.

### **3. Frontoiaren erabileraren konpromisoa**

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2024ko uztailaren 4ean, 37/2024 Ebazpena onartu zuen. Gaia: Hurrengo bost urtean gutxienez Beteluko frontoi estalia kirol jardueretarako erabiltzeko konpromisoa hartzea.

### **4. Ordainketa agindua**

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 38/2024 Ebazpena onartu zuen. Gaia: 2024ko maiatzaren 28an egindako osoko bilkuran onartu ziren fakturak ordaintzea.

### **5. Katastro aldaketaren espedientearen hasiera**

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2024ko uztailaren 10ean, 39/2024 Ebazpena onartu zuen. Gaia: Beteluko 1. Poligonoko 227. Partzelaren mugak eta azalera grafikoki aldatzeko prozedura hastea, Nafarroako Lurralde Aberastasunaren eta Katastroen Erregistroari buruzko azaroaren 21eko 12/2006 Foru Legearen 31. Artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz.

### **6. Ordainketa agindua**

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 40/2024 Ebazpena onartu zuen. Gaia: 2024ko ekainaren 25ean egindako osoko bilkuran onartu ziren fakturak ordaintzea.

### **3. BETELUKO UDALAREN ETA CEDERNA GARALUR ELKARTEAREN ARTEKO DATU PERTSONALAK BABESTEKO KONTRATUA ONARTZEA**

Cederna Garalur elkarteak Beteluko Udalaren datu babestuetara sarbidea izateko kontratu proposamena aurkeztu du. Kontratu horrek Cederna Garalur elkartearen datuetara sartzeko eta erabiltzeko baldintzak ezartzen ditu.

Hau dena ikusita, udalbatzak aho batez zera onartu du:

Lehenengoa: Beteluko Udalaren eta Cederna Garalur Elkartearen arteko datu pertsonalak babesteko kontratua onartzea.

Bigarrena: Beteluko Udaleko alkatea ahalduntzea kontratua eta kontratutik erator litezkeen dokumentuak sinatzeko.

### **4. UDAL BALIABIDEEN ERABILERA ARAUTZEN DUEN UDAL ORDENANTZAREN HASIERAKO ONARPENA.**

Udalbatzari honako hau proposatzen zaio:

Udal baliabideen erabilera arautzen duen udal ordenantzaren hasierako onarpena.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 325. artikuluan xedatutakoaren arabera, espedientea jendaurrean izanen da hogeita hamar egun balioduneko epean, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita, auzotarrek eta legezko interesdunek espedientea aztertu eta erreklamazioak, eragozpenak edo oharrak egin ditzaten.

Arauzko epean erreklamaziorik egiten ez bada, ordenantza behin betiko onartutzat joko da.

Alkateak erabakia bozkatera ekarri du, eta udalbatzak aho batez onartu du.

## **5. UDALBATZAREN EZAGUTZARAKO**

### **1.- Hezkuntza Saileko Langileriaren eta Azpiegituren zuzendari nagusiaren 130E/2024 ebazpena**

Udalbatzari Hezkuntza Saileko Langileriaren eta Azpiegituren zuzendari nagusiaren 130E/2024 ebazpena jakinarazi zaio. Bertan, Beteluko Udalarari 30.000 euroko zuzeneko dirulaguntza ematea onartzen da, Araxes eskualdeko ikastetxe publikoan kirol instalakuntzak eta Haur parkea egokitzeko.

### **2.- Kulturako Zuzendari Nagusiaren 161/2024 ebazpena – Vianako Printzea Erakundea**

Udalbatzari Kulturako zuzendari nagusiaren 161E/2024 ebazpena jakinarazi zaio. Ebazpenak Nafarroako Foru Komunitateko 2024ko indusketa eta prospekzio arkeologikoen Plana onesten du, eskuhartzeak baimenduz eta/edo ukatuz. Baimendutakoaren artean dago Araxes bailarako kobazuloetan egindako eskuhartzea.

## **6. FAKTUREN ONESPENA**

Repsol	Gasola	50,01 €
Iruña Mantenimientos	Eskolako mantenua	1.408,16 €
Santesteban Elizalde Manuel	F. TB-2024-F-18	387,20 €
Wikai	Ekaineko gastua	112,10 €
Orona	F. 2404230522	355,74 €
Serlimpia	F. 240226	428,34 €
Araxes Ikas komunitatea	Aterpeko garraioa	324 €
Dimarpe SL	F. 241493	1.256,57 €
Zelai	F-001597/24	417,69 €
Ofico	Ekaineko aholkularitza	91,57 €

Iberdrola	Urberoako ekaineko argia	6,47€
Iberdrola	Udaleko pisuaren ekaineko argia	8,85 €
Taxilon	Ekaineko mugikortasuna	114,10 €
Iberdrola	Argiztapen publikoa ekaina	371,66 €
Iberdrola	Argiztapen publikoa ekaina	168,30 €
Urzubi	Material erosketa	522,33 €
Venus Campos Walsh	Ekaineko garbiketak	2.833,41 €
Rodriguez Ezpeleta	F. 2024-20	548,69 €
Rodriguez Ezpeleta	F. 2024-21	477 €
IDM	F. 2-001125	128,84 €
Goener	Eskolako ekaineko gastua	607,89 €
Goener	Udaletxeko ekaineko gastua	474,89 €
Olano Zabaleta Miel Ramon	F. 36-2024	1.586,31 €
Olano Zabaleta Miel Ramon	F. 35-2024	105,88 €
Angelines Carrillo Ruiz	F. A13/2024	90 €
Maite Garcia Satrustegui	Pelota. Herriartekoa	80,25 €
WC Loc	Festetako komun portatilak	1.730 €
Ducha Ya	Ostatuko dutxa aldaketa	2.862 €
Sutekna	Frontoiko lurra	13.331,25 €
Hortalizas Etxeberria	Landareen erosketa	13 €
Animsa	3. hiruileko mantenua	1.166,29 €
Irurzun-Masferrer SI (ecolan)	PAMIF	4.477 €
Miguel Ramon Olano Zabaleta	F. 38-2024	971,68 €
Miguel Ramon Olano Zabaleta	F. 41-2024	4.951,02 €
Urzubi	F. A 728	2.117,50 €
Urzubi	F. A 729	2.662 €
Miguel Ramon Olano Zabaleta	F. 39-2024	514,25 €
Gizarte Zerbitzuak	Aurrekontuaren bigarren %50	5.654,93 €
Ofico	F. F242844	91,57 €
Brico Depot	Material erosketa	454,50 €
<b>SORGINTXO HAUR ESKOLAKO LEHEN ZIKLOA</b>		
Comercial Fervis	F. 2003	117,25 €
Rosa Estanga Arrizubieta	Ekaineko garbiketa produktuak	27,55 €
Rosa Estanga Arrizubieta	Ekaineko janaria	75,21 €
Kide Aholkularitza	Ekaineko aholkularitza	180,58 €
Maite Garcia Satrustegui	Ekaineko bazkariak	856,70 €
Comercial Fervis	F. 2003	56 €
	<b>DENETARA:</b>	<b>55.266,53 €</b>

Lehendakariak fakturak bozkatzera ekarri eta udalbatzan diren kide guztiek aho batez onartu egin dituzte.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 81.2 artikuluari jarraiki, Lehendakariak, premiazkotasunez, gai zerrendan ondorengo puntuaren inguruko akordioak sartzeko eskatu du: "Beteluko Kastabal, Lulota eta Aitzondo parajeetako baso aprobetxamenduak", "3/2024 aurrekontu aldaketaren hasierako onarpena" eta "Aralarko Elkarteari buruzko TANen ebazpena".

Premiazkotasunaren zioak ondorengoak dira: "Beteluko Kastabal, Lulota eta Aitzondo parajeetako baso aprobetxamenduak" puntuaren premiazkotasuna lanak denbora onarekin egiteko beharrean dago. "3/2024 aurrekontu aldaketaren hasierako onarpena" puntuaren premiazkotasuna aurrekontu aldaketak eragiten dituzten obrak jada martxan direlako eta obra horietan aurreikusi gabeko lan batzuek partidak handitzeko beharra eragin dutelako da. Eta azkenik "Aralarko Elkarteari buruzko TANen ebazpena" puntuaren premiazkotasuna ebazpena orain berri jaso delako da.

Lehendakariak gai ordenean sartzeko akordioa berrestera ekarri eta udalbatzan diren kide guztien aldeko bozkarekin onartu da. Aldi berean, aldeko bozka hori udalbatzako legezko udalkideen gehiengo osoa da.

## **7. BETELUKO "KASTABAL, LULOTA ETA AITZONDO" PARAJEETAKO BASO-APROBETXAMENDUA.**

Nafarroako Gobernuak Baso Zerbitzu eta Ehiza Kudeaketako zuzendariaren maiatzaren 31ko 106/2024 Ebazpenaren bidez, baimena eman zen Beteluko herri-mendiko Kastabal, Lulota eta Aitzondo parajeetaan baso-ustiapena egiteko. Lotea honako hauek osatzen dute:

<b>LOTEA</b>	<b>ESPEZIE</b>	<b>OIN KOPURUA</b>	<b>BOLUMEN OSOA</b>
Bakarra	Haritz amerikarra oin zurgaia	421	1.013,6
Bakarra	Haritz amerikarra zurezko oinak	143	54,4
Bakarra	Hemengo haritza	35	48,4
Bakarra	Pagoa	35	61,2
<b>Ototara</b>		<b>634</b>	<b>1.177,6</b>

Erabaki da:

1. Jendaurreko enkantean aipatutako baso-aprobetxamenduaren ateratzea arautuko duten administrazio-klausula zehatzen agiria onartzea.

2. Kontratazio Mahaia izendatzea. Honela osatuko da:

- Lehendakaria: Lorenzo Zubillaga Goicoechea jauna.
- Batzordekidea: Iñaki Elizalde Zubillaga jauna
- Batzordekidea: Ander Prados Otamendi jauna
  
- Idazkaria: Joanes Aleman Olo jauna, Beteluko Udaleko idazkaria.

Bilkuran dauden kideek aho batez hartu dute erabaki hau.

### **8.- 3/2024 AURREKONTU ALDAKETAREN HASIERAKO ONARPENA**

Udalbatzari ondorengo 3/2024 aurrekontu aldaketaren espedientearen hasierako onarpena proposatu zaio:

1. Kreditu gehikuntza: 1 1621 6350001 “zaborrontzien berregokitzea”: 11.000,00 euro.

“Libre determinazioa” 1 7508002 sailean jasotako aurreikusi gabeko dirusarrerarekin finantzatua: 11.000,00 euro

2. Kreditu gehikuntza 1 3420 6320001 “Frontoiko tartea itxi”: 3.000,00 euro.

“Libre determinazioa” 1 7508002 sailean jasotako aurreikusi gabeko dirusarrerarekin finantzatua: 3.000,00 euro

Aldaketa Nafarroako Toki Ogasunaren 2/1995 Foru Legearen 212 eta hurrengo artikuluetan ezarritakoaren arabera egin da.

Nafarroako Toki Ogasunari buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 212. eta hurrengo artikuluen arabera eta Beteluko Udaleko 2024ko aurrekontuaren exekuzio oinarrien 9. Oinarrien arabera, espediente hau jendaurrean izanen da 15 egun naturalean udal idazkaritzan, nahi duenak aztertu ahal izateko eta hala nahi izanez gero, egoki ikusten dituzten erreklamazioak egin ahal izateko.

Erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz, honela onarturik dagoen espediente hau behin betikotzat joko da.

Lehendakariak akordioa bozkatzera ekarri eta udalbatzan diren guztiek aho batez onartu egin dute.

### **9. ARALARKO ELKARTEARI BURUZKO TANEN EBAZPENEA**

Udalbatzari Nafarroako Adadministrazio Auzitegiak emandako 1156 zenbakia duen ebazpenaren berri eman zaio. Ebazpen horretan Nafarroako Administrazio Auzitegiak Lorenzo Zubillaga Goicoecheak jarritako helegitea onartu du eta ondorioz, Aralarko Elkartearen batzar orokorrak, 2023ko abenduaren 15ean, karguak eta organoak berritzeari buruz hartutako akordioa erabat deuseza dela ebatzi du izan

ere, Aralarko Elkartearen ordenantzetan ageri denez, Elkarteko lehendakaria Lakuntzako alkateak izan behar du eta ezin da Lakuntzako zinegotzirik izan Lakuntzako alkatearen ebazpen bidez zinegotzi batengan egindako delegazioaren bitartez horrela egin asmo bazuten ere.

#### **10. GALDERAK ETA ESKAERAK**

Ez da ez galdera ez eta eskaerarik egin.

Arratsaldeko bederatziak direnean, bilkura amaitu eta altxatu egin da, idazkaria naizen honek ziurtatzen dudana.